

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Euskadi Gizarte Segurantzako milioi bat kotizatzailetik gora finkatu da


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 handitu zen martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean. Horri esker, Euskadik seigarren hilabetez jarraian milioi bat kotizaziotik gora zenbatu ditu. Hain zuzen ere, martxoan 1.012.128 afiliazio erregistratu ziren Gizarte Segurantzari, hau da, aurreko hilean baino 4.564 gehiago (%0,45), Gizarte Segurantzako Ministerioak argitaratutako datuen arabera.

Afiliazioaren hazkundera handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino. Lehenengo kasuan, martxoko urte arteko tasa %2,0 izan zen, aurreko datua baino hiru hamarren txikiagoa, eta gizonen kasuan, berriz, %1,5, egonkortasun handiagoa erakutsi baitute aurtengo lehen hiru hilabeteetan. Igoera horien ondorioz, 487.500 emakume eta 525.000 gizon inguru daude Gizarte Segurantzari afiliatuta.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

MARTXOKO AFILIAZIOA
%1,8




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen eta jarduera adarren araberako bilakaerak adierazten du oraindik ere zerbitzuak direla afiliazio berri gehienak biltzen dituztenak, %2,1eko hazkundea izan baitute 2023ko martxoarekin alderatuta. Baina industriak ere bilakaera positiboa erakutsi du, %1,2ko aldakuntza tasarekin, aurreko datuen antzekoa.

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzu jardueren barruan, beste hilabete batez, ostalaritzan (%4,1), hezkuntzan (%3,7) eta osasun arloan (%2,2) izandako emaitza onak nabarmentzen dira, baina baita jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (%2,8), garraioan (%2,6) eta informazio eta komunikazioetan (%4,8) lortutakoak ere.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko martxoa	2024ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	994.655	1.012.128	17.472
Industria manufakturagileak	172.789	174.775	1.985
Merkataritza	133.836	134.664	828
Osasun arloko jarduera	109.909	112.315	2.405
Hezkuntza	82.408	85.469	3.061
Ostalaritza	67.912	70.710	2.798
Administrazio jarduerak	67.438	68.186	748
Lanbide jarduerak	61.770	63.475	1.705
Eraikuntza	58.531	58.438	-93
Administrazio publikoa	51.865	52.573	709
Garraioa	44.450	45.586	1.136
Etxeko langileak	29.340	29.052	-115
Informazioa eta komunikazioa	26.435	27.695	1.261
Bestelako zerbitzuak	27.257	27.380	122
Jarduera artistikoak	18.904	19.749	845
Finantza jarduerak	16.959	17.179	219
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.882	11.728	-48
Ur horniketa	6.370	6.430	60
Higiezin jarduerak	4.302	4.359	57
Energia horniketak	1.682	1.747	65
Erauzketa industriak	534	529	-5
Lurralde kanpoko erakundeak	79	88	9

Iturria: Gizarte Segurantza.